

Jesus Berri Ona da guztiontzat¹

Zein sekretu ezkututzen da Nazaretoko Jesusek historian zehar milioika lagun liluratzeko? Zein izan zen mendebaldean eta munduko beste leku batzuetan erlijioa, kultura, bizikidetasuna eta artea era erabakigarrian markatu duen pertsona hau? Seguruenik, inork ez du hainbesteko ahalmenik izan bihotzetan; inork ez ditu Berak bezala adierazi gizakiaren kezka eta galderak; inork ez du hainbeste itxaropen piztu; inor ez da hain maitatua eta gorrotatua izan... Zergatik ez dugu ahaztu bere izena? Zergatik, oraindik gaur, ideologia eta erlijioek krisi hain sakona jasaten dutenean, jarraitzen dute bizirik, milioika lagun fedea sustatuz, Berak eta bere mezuak? Zergatik erakartzen eta inter- pelatzen gaitu?

Nor da Jesus?

Jesus, Galileako judua, Nazaretoko auzotarra, Jainkoaren bilatzailea, errimesa historiako bideetan zehar, biziaren sendatzailea, emakumezkoaren adiskidea, haurren lagun hurkoa, pobre eta baztertuekin arretatsua eta errukiorra, ikasleekin arduratsua, fededun leiala, mugimendu berritzailearen sortzailea, ezarritako agintarientzat gatazkatsua eta arriskutsua, azkeneraino koherentea eta Jainkoaren auziaren martiria, Jainkoak berpiztua... Nazaretoko Jesus Jainkoaren erreinuaren profeta ere izan zen eta gaur ere bada, azkenen defendatzailea, pertsona liluragarria, biziaren maisua eta gure bizimoduaren jatorria. Bera da Jainko ikusiezinen irudi ikusgaia, gizon egindako Jainkoa. Bera da berri ona guretzat, bere jarraitzaileontzat eta gizadiarentzat.

Jainkoaren erreinuaren profeta

Jarraitzen diotenean eta Galileako pobreek atsegin dute Jesus bere egite eta esanengatik, bere bizitza eta mezuagatik. Eta bere bizitzaren eta mezuaren muina Jainkoaren erreinuan dago. Jainkoaren erreinuak, gizon eta emakume pobre eta ezjakin haiek uler zezaten, zerbait bakun eta zehatza izan behar zuen; eta onar zezaten, ona izan behar zuen eta beren itxaropen eta asmorik sakonenei erantzun behar zien. Eta zalantzarik gabe, ebanjelioetan ikus daitekeenez, horrelaxe izan zen. Jesusentzat, gizon eta emakumeen bizia da lehenengo, ez lege erlijiosoak. Galileako pobre eta nekazariak zerbait berri eta originala ikusten dute Berarengan: sendatuz hots egiten du Jainkoaren salbamena eta sendatze indibidual eta sozialerako prozesua martxan jarriz iragartzen du bere erreinua. Bere sakoneko asmoa argia da: sendatu, sufrimendua arindu, morrontzetatik askatu, bizia berreskuratu. Ez du edonola sendatzen; ez du sentsazionalismoz jokatzeko bere agintea berresteko. Errukiagatik sendatzen du, gaixoei, abailduei eta beren onetik ateratakoek Jainkoak beraietzat bizitza sanoagoa nahi duela senti dezaten. Horregatik, mintzatzen entzutean eta, batez ere, gaixoak sendatzen, deabruak hartuta zeudenak beren gaitzetik askatzen eta baztertuen alde egiten ikustean, benetan Jainkoa beren

¹ "Etorri eta ikusi!", 2. Mailako haurrentzako gida pedagogikoko 4. Gaitik hartuta dago. Katekesirako Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratua.

[Escriba aquí]

bizitzez arduratzen dela, Jesusek iragartzen duen Jainkoaren erreinuak ez duela zerikusirik zama bezala sufritzen eta bizitzen dituzten arau erlijiosoekin esperimentatzen dute pertsona haiek. Horregatik, Jesusen presentzia eta jarduera berri ona da guztiontzat.

Azkenen defendatzailea

Jainkoaren erreinuaren profeta den Jesusek ez du inor kanpoan uzten. Denei iragartzen die berri ona. Denek goza dezakete erreinuaz, baina ez denek berdin, Jainkoaren errukiak presa duelako, beste ezer baino lehen, pobre eta zapalduen zuzentasuna itzultzeko. Horregatik, Jainkoaren erreinuaren etorrera zorionekoa da pobreentzat eta zapalduta bizi direnentzat eta, bitartean, mehatxua da zapalketa hori eragiten dutenentzat. Jainkoaren erreinua pobreentzat dela aldarrikatzen eta adierazten du Jesusek. Eta "zorioneko" izendatzen ditu, baita jasaten duten bidegabeko egoeran ere, ez jabe handiak bezala aberatsak izango direlako edo hauek baino hobekak direlako, Jainkoaren kutunenak direlako baizik. Jainkoak zuzentasuna ezarri nahi du eta bere seme-alaba senti daitezela. Jesusek, Jainkoaren erreinuaren aurka dagoena salatzeaz batera, erreinuarekin bat datorren bizimodua eskaintzen du. Bere parbolek, konfiantzari buruzko hitzek eta, batez ere, zorientasunak adierazten dute bizimodu hori eta Bera, Nazaretoko Jesus, azkenen defendatzailea berri ona dela denontzat baieztatzen dute.

Komunikatzaile argi eta liluragarria

Jesusek ez darabil idazlari eta apaizen hizkera ez bere mezua iragartzeko ezta entzuten eta jarraitzen diotenekin, hau da, bere garaiko herri xehe eta apalarekin, solasean jarduteko ere. Herri hizkuntza darabil eta sormen agortezinaz irudiak asmatzen ditu, konparazioak egiten eta jendea txunditzen duten parabolak kontatzen. Bere hizkera berezia da. Bere hitzetan ez dago ezer artifizialik; ez darabil ideia abstrakturik edo esaldi korapilatsurik; argitasunez eta bakuntasunez ematen du bizi duenaren berri. Bere hizkeran orduko Galilea islatzen da, bere Jan eta jaiekin, bere klima eta paisaiarekin, bere artalde eta mahastiekin, bere arrantzale eta nekazariekin, bere arazo eta klase sozialekin... Bere hitza jende haiei Jainkoari buruz hitz egitean itxuraldatzen da. Bizitzari beste era batera begiratzen, Jainkoa ona, leiala eta errukitsua, samurtasunez eta errukiz beterikoa dela sentitzen, bizitza ikusten dena baino gehiago dela ikusten... lagundu nahi die. Beste batzuetan, beren esperientzietan sakontzen laguntzen die, zein baliotsuak diren ikusten, bizitzaren sakonean Jainkoa aurkitzen... Bere parbolekin, legearen maisuen azalpen zehatzetan gertatzen ez den zerbait gertatzen da. Jesusek Jainkoa "agertzera ematen du" entzuleen bizitzan bat-batean sartuz. Bere hitzek eta parbolek hunkitu eta pentsarazi egiten dute, bihotza ukitzen dute eta nork bere burua irekitzera daramate, bizitza konbentzionala astintzen dute eta zeru-muga berria sortzen dute beste era batera bizitzeko. Jendeak berri on bezala entzuten ditu. Ez da harritzekoa jendea txundituta geratzea, ebanjelioetan jasotzen denez. Jesus, horrela, berri on bezala agertzen da guztiontzat.

[Escriba aquí]

Bizitzako maisua

Jesusek bere bihotzean bizi duen esperientzia komunikatzen eta iragartzen du: Jainkoa dago- eneko hemen dago eta salbatzera dator, ez kondenatzera. Jesusentzat, Jainkoaren presentzia salbatzailea nabaritzen da, isilik baina egiatan. Jendeak errabi deitzen dio, maisu bezala ikusten dutelako. Baina ez da maisu batere konbentzionala. Inork ez du bere garaiko idazlari edo maisuekin nahastatzen. Ez da inongo eskolako kide eta ez dago inongo tradizioen barnean. Bere autoritatea harrigarria da, bere egintzetan ikusten dutelako bere hitzez dioena. Bere ahotik, bizitzako bide berri erabat desberdinaren inguruak entzuten diharduela uste du jendeak. Markos 1, 22 txatalean hauxe esaten da: *"haren irakaspenaz txunditurik zegoen jende guztia, nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuek bezala"*. Jesusek badaki jendearen bihotza eta burua ukitzen. Sarritan harritzen ditu herri esaerekin, paradoxa harrigarriekin, benetako eta eguneroko bizitzatik ateratako parabola ederrekin eta konparazioekin, tradizioan sustraitutako esaera zaharrekin... Herri jakinduriatik ateratako hizkerarekin Jesusek bere asmoa aditzera ematen du era berezian. Bihotza aldatzeko dei egiten digu, legetik harago joateko, Jainkoaren borondatea ezagutzeko, maitasuna zein erabakigarria den sinisteko eta esperimenezko; gure etsaiak maitatzeko, zuzentasunaren alde indarkeriarik gabe borrokatzeko proposamena egiten digu eta agindu berria bizitzeko arau nagusia ezagutzera ematen digu: elkar maita dezagula berak maite izan gaituen bezala (Jn 13, 34). Hauxe da Bera eredu den berri onik berriena eta onena.

Gure bizimoduaren jatorria

Nazaretoko Jesus, on eginez igaro zena, beti besteengan pentsatuz bizi izan zena, guztiongandik eta bereziki baztertuengandik hurbil zegoena, duintasun handiz bizi izan zen gizon xume eta apala, hain maitatua eta gorrotatua izan zena, Jainkoaren erreinua gure artean iragarri eta gauzatu zuena, Nazaretoko Jesus, pertsona liluragarri hori, gaur ere, bi mila urteren ostean, gure bizimoduaren jatorria da, gure fedearen ardatza, muina eta eragilea eta, horregatik, berri ona, bizi eta iragarri nahi dugun berri ona.

Bibliak nola adierazten du (Lk 6, 20-23)

"Jesusek, ikasleei begira, honela esan zuen: zorionekoak behartsuok, zuek baituzue Jainkoa errege. Zorionekoak orain gose zaretenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue. Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela eta, jendeak gorrotatu, kanpora bota eta madarikatuko zaituztenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alai zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan".

Jesusek aldarrikatzen dituen zoriontasunak dira Jainkoaren erremuaren programaren bihotza eta giza irrika sakonari erantzuten diote. Bizitzarako ideal ebanjelikoa eta guztiontzako mezu askatzailea dira. Zoriontasunekin, bizitzaren ulermen berria [Escriba aquí]

ematen du, garai hartako gizarteak eta gaur egungo munduak eskainitakoarekin alderatuz guztiz desberdina. Gizartearen balioak hankaz gora jarriz, zoriontasun/zoritxar hautabidearen aurrean jartzen ditu bere ikasleak eta jartzen gaitu gu geu.

[Escriba aquí]



Fede-zabalkunde
eta Katekesirako
Ordezkaritza



Bistakoa da Jesusek ez dituela pobreak "zorioneko" aldarrikatzen pobre direlako eta, are gutxiago, ez du pobretasun ekonomikoa bizitzako idealtzat jotzen. Zoritzarrez, honela interpretatu zen testua eta oraindik ere interpretatzen da eta hori pobreen aurkako eta Jesusen beraren aurkako iraina baizik ez da, Jesus beren egoeratik askatzeko hurbildu zelako, hain zuzen ere, goseti eta gaixoengana. Beraientzat Jainkoaren erreinua heldu delako dira zorionekoak pobreak. Zorionekoak dira "Jainkoaren erreinua beraiena delako" edo "Jainkoa dutelako erregetzat". Jesusek ez die zoriona agintzen, zorioneko aitortzen ditu!

Zoriontasunak ez dira gure bertute moralen, ahaleginen eta bihotz-berritzearen ordainsaria. Jainkoak pobreen, gosetien, bizitzak bakarrik nahigabeak eta negarrak ematen dizkien, Beragatik eta bere auziatatik jazarpena jasaten dutenen alde egiten du, ez hobeak direlako edo bertute jakin batzuk dituztelako, jasaten duten zapalketazko eta gizatasunik gabeko egoera jasanezina delako biziaren eta justiziaren, egiaren eta errukiaren Jainkoa denarentzat. Hauxe da Jesusen mezua.

Horrela ulertuta, zoriontasunek berri alai izatearen zaporea berreskuratzen dute eta arau etikoen bildumatzat (pobreak izan behar dugu, gosea pasatu behar dugu, e.a.) edo bakarrik beste mundurako mezutzat hartzen dituen interpretazioa baztertu egiten da. Jesusentzat, pobretasuna eta miseria Jainkoaren nahiaren aurka doan eskandalua dira. Kristauak ez ditu onartu behar eta aurre egin behar die. Horiek ezabatzeko ahalegin guztiek elkarbanatutako aberastasun eta oparotasunaren adierazpen den Jainkoaren erreinuaren aurrerapena dakarte. Hala ere, hainbeste lagunek eta herrialdek bizi duen gaurko egoeran, pobretasuna aukeratzea, pobreen aldeko elkartasun bezala, pobretasunaren aurka borrokatzeko, berri ona da, Jesusen auziarekin bat egitea eta gure seme-alaba eta anai-arreba izatea Jainkoaren erreinua eraikiz bizi izatea delako.

Gogoeta honek zertara gonbidatzen du

- Nazareteko Jesus eta bere mezua hobeto ezagutu eta Beratzaz fidatu, beti delako berri ona gure bizitzetarako.
- Gure fedea pozez, alaitasunez eta askapenez bizi eta ez zama bezala, nahigabez eta tristuraz.
- Noizean behin, gure Jesusekiko bategitean eta gure erakarpenean, gogo bizian, atxikimenduan, konpromisoan eta jarraipenean sakondu dugun ikusi.
- Ebanjelioan jasotzen diren ikasleen hitzak -"Jauna, norengana joango gara? *Betiko bizia dute zure irakatsiek*" (Jn 6, 68)- gure bihotzean ere sortzen diren ala ez hausnartu.

[Escriba aquí]